

**LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.**– Ikasgaiak atzerriko hizkuntzetan irakastea.

Curriculumeko ikasgai batzuk atzerriko hizkuntzetan irakasteko baimena eska diezaiokete ikas-tetxeek hezkuntzaren arloko eskumena duen sailari. Baimena izanez gero, irakaskuntza horrek bere hartan eutsi behar die dekretu honetan araututako curriculumaren oinarrizko alderdiei, eta ahaleginak egin behar dira ikasleek bi mailetan ikasgaien berezko terminologia atzerriko hizkuntzan eta erkidegoko hizkuntza ofizialean edo ofizialetan jakin dezaten.